

KILOMETROAK 2021

BEASAIN | LAZKAO | ORDIZIA



batera, bagara, bat gara

GIPUZKOAK BADU ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,
**Europar
desberdintasun
maila txikienetariko**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa

aurkibidea

Sarrera: Kilometroak aurkezpena.....	4
Jakintza Ikastola eraberritzen.....	5
Ikastola: Kilometro baten historia.....	6
Etorkizuna: bailarako erreferente pedagogikoa.....	7
Onura sozialeko ekimenak.....	8
Bihar.....	9
Kilometroak kanta.....	12
Leloa, logoa, abestia eta bideoklipa.....	15
Ikastolak herriari: Kursaaletik Euskaldunara.....	16
Amaiur: komiki lehiaketa.....	17
Liburu ibiltaria.....	20
Horma-irudia.....	21
Euskal joko eta kirolen topaketak.....	22

KILOMETROAK KULTUR ELKARTEA

Lege Gordailua: D 011112-2021

Euskara, euskal kultura eta ikastolak, **bat gara!**

Ikastolakide eta ikastola-lagun agurgarriak

Badatoz Kilometroak, badator Gipuzkoako ikastolen jai handia! Goierriin espero zaituztegu urriko lehen igandean, elkarrekin egun eder bat igarotzeko. Iaz ezin izan genuen ospatu behar bezala, guk nahiko genukeen bezala, nahiz eta Zubimusu ikastolako komunitateak gogor lan egin zuen. Aurten ere ez dugu ospatuko guk nahiko genukeen moduan, eta pandemia egoerara moldatutako eskaintza dugu. Baina Goierriko ikastolek ilusio handia jarri dute aurtengo Kilometroak antolatzen, eta ate joka dugu dagoeneko gure jaia.

Elkarrekin antolatu dugu aurtengo jaia, beti bezala, auzolanean. Goierriko ikastolak saretz, gainontzekoen laguntza jasoz. **Batera**, alegia, gure aurtengo leloak dioten moduan. Ikastolak, euskara eta euskal kultura, batera! Euskararentzat eta euskal kulturarentzat bozgorailu eta plaza handiak dira gure jaiak, ezinbesteko bozgorailu eta plazak. Eta egoerara moldatu behar izan dugun arren, eutsi egin diegu, ezin dugulako atzera egin, euskarak eta euskal kulturak ezin dituztelako plazak eta presentzia galdu. Aitzitik, berreskuratu egin behar dugu haietzako espazioa, presentzia.

Horregatik, eta gure hizkuntzak eta kulturak pandemia garaiotan jasan duten atzeraldiari aurre eginez, sormena landu dugu ikastolen jai guztiok, Ikastolak Herriari ekimenaren bitartez. Aurtengo ikastola antolatzaileek egin dituzten horma irudiak, ikastolaz ikastola ibili den Ipuin Ibiltaria, gure lehen komiki lehiaketa, edota euskal jolas eta jokoen egitasmoa jarri ditugu, besteak beste, martxan. Sormen eta ekimen lan handi bat sormen kolektibo bat, bereziki gure ikasleek, gure seme-alabek, buruturikoa.

Euskara, euskal kultura eta ikastolak, **bat gara**. Euskara eta euskal kultura ardatz dituen hezkuntza sistema bat nahi dugulako. Benetako murgiltze eredia gauzatuko duena, oraingo Hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diena euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direla. Euskal hitzun konprometituak izan daitezen, euskaratik eta euskaraz sortuko dutenak, euskara eta euskal kultura unibertsalak baitira, gaztelania, frantsesa edota ingelesa bezainbat eta bezalaxe. Unibertsala den bezala guk nahi dugun hezkuntza sistema: euskal herritar orori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, poli-

tiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari do sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik. Eta Euskal Curriculumetik erakia; oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema hezitzailea eta hobekuntzara bideratua.

Oinarri horiek eta beste hainbat –guztira 11–, proposatu ditugu ikastolok Euskal Hezkuntza Sistema osatzeko. Gure proposamena gizarteratzen dihardugu, baina ez da ikastolentzat bakarrik, euskal gizartearentzat proposatzen dugu. Horregatik nahi dugu oinarri horien gainean elkarrekin hezkuntza sistema bat osatu, hezkuntza komunitateen, sareen, eragileen, erakundeen, hautetsien artean, gizartearen, eraiki dezagun. Gai izango al gara? Ikastolok argi dugu: bai, **bagara**.



“Elkarrekin antolatu dugu aurtengo jaia, beti bezala, auzolanean”

Andramendi, Jakintza eta San Benito ikastolak ere gai izan dira egoera zail honetan Kilometroak jaia antolatzeko erronkari eusteko. Eta hemen ditugu aurtengo Kilometroak. Herri bat garela, euskara garela, komunitate bat garela, Euskal Herri osorako hezkuntza proiektu bat garela... erakutsi nahi dugu aurtengo ekitaldian, eta gure lurraldeko ikastolen batasuna ez ezik, Euskal Herri osoko ikastolen batasuna ere azpimarratuko dugu. Goierri begira, berriz, hiru ikastolon arteko elkarlana eta elkar ezagutza bultzatzeaz gain, gure arteko harremanak estutu nahi ditugu: Kilometroak antolatu eta egitetik harago, euskaratik, euskal kulturatik eta euskal curriculumetik abiatutako pedagogia eraldatzailearen bitartez aurrera daramagun proiektua elkarrekin garatzen jarrai dezagun, elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz, Beasain, Lazkao eta Ordiziatik abiatuta Goierri osoari eskaintzeko.

Batera, bagara, bat gara dio aurtengo leloak. Bada, horixe; eta horri esker gara garenak.

Nekane Artola

Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakaria

Jakintza Ikastola eraberritzen



Hau mundu zoroa! Etengabeko aldaketan murgilduta bizi gara egungo gizartean, abailan goaz aurrera, baina nora? Nekez gelditzen gara bide bazterrean nor garen eta zer garen pentsatzeko. Ezinbesteko abiapuntua da, ordea, helmugara iritsiko bagara. Eta nor gara gu? Zer gara gu? Kooperatiba integrala gara gu, herri ekimenetik sortua; euskararekin zein euskal kulturarekin konprometitutako ikastola eta, aldi berean, beste kulturetara irekia. Hobekuntza jarraikorraren bidez, hezkuntza-komunitatea osatzen dugun ikasle, guraso, langile eta laguntzaileok elkarlanean jarduten dugu, ikaslea bere osotasunean hezi nahi baitugu. Guztion artean etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko gai izango diren pertsona konpetenteak prestatzea dugu helburu.



Zein ezaugarri izan beharko lituzke bere ibilbidea gure ikastolan egiten duen pertsona konpetente horrek? Bada, gure irteera profileen zehaztuta datozenak: hala euskararekiko, nola euskal kulturarekiko konpromisoa eta, aldi berean, eleantzasuna; autoestimarekin, eta oro har, doikuntza personalarekin loturiko trebetasunak; bai ikaskuntzarekin, bai ezagutzaren kudeaketarekin erlazioaturiko gaitasunak; elkarbizitza nahiz harreman sozialak errazten dituzten dohainak; eta garapen profesionala zein lan-mundurako sarbidea ahalbidetzen dituzten konpetentziak.



Ez dugu lan makala, ez horixe! Eta horregatik, asmo handiak ditugulako, hain zuzen ere, beharrezkotzat jotzen dugu eraldatzea. Batetik, Ikastolako Curriculum Proiektua berritzen ari gara buru-belarri. Bestetik, Haur Hezkuntzako eraikineko aldaketei jarraipena emango diegu LH eta BHko eraikinean: espazio zabalak eta erabilera anitzekoak sortu nahi ditugu, gure ikasleek garai berrietara egokitutako metodologia aktiboen bidez ikasteko aukera izan dezaten.



Hiru garai, helburu bera

KMK 1977-Urriak 6

Ez dugu berehalakoan ahaztuko egun hura. Hirugarren urtea nuen irakasle lanean Ikastolan, eta nahiz eta ez oso ondo irudikatu zer izango zen, bai sumatzen genuela zerbait handia, berezia... izango zela. Helburua ahalik eta kilometro gehien egitea, ahalik eta diru gehien ordaintzeko!!! Eta horrek funtzionatu egin zuen! Kontua da bagenekiela zertarako ari ginen: euskaraz eta euskaratik pentsatutako hezkuntza proiektu bat aldarrikatu eta aurrera ateratzeko. Ilusioa, poza, auzolana...Eta hori ulertu egin zuen euskal gizarteak. Ondo ulertu ere! 44 urte geroago ere ospatzen ari gara eta... Euskal Herriko herrialde guztietan, gainera.

Oso modu xumean antolatua izan zen, ez zen azpiegitura berezirik, ez oholzaririk, ez karparirik, ezta berariazko abestirik ere! Lehen Kilometro haiei Irakurgai liburu baten azala jarri zieten logo bezala. Ideia bikaina izan zela deritzot. Izan ere, garai haietan euskal ikuspegitik eta euskarazko testu-liburu eta bestelako eskola material eskasia handia genuen. Horregatik, aipamen berezia egin nahi nieke, lan eskerga horretan, kilometro eta kilometroka paper idatzi zituzten pertsona eta talde guztiei. Izan genuen zuen beharra aurrera egiteko!



KMK 2001-Urriak 7

Ez zen izan hura gure Ikastolarentzat garairik onena! Kilometroen jaia antolatzen alde batetik, baina inoizko ekaitzik gogorrena jasaten, aldi berean. Zurrumbilo beltzean sartuak ginen, baina urriaren 7ko egunsentian, Aralar mendikatearen atzetik eguzki errainu distiratsuak ikustean, zirrara berezi batek uzkurto zigun bihotza. Egun hura bikaina izan zen: eguraldia, ekitaldiak, jendearen emana... Eskerrik beroenak lagundu ziguten guztiei.

Indar berezia eman zigun horrek. Kilometroetako leloa *Garena garena* izan zen eta guk horri tinko helduz, "garenak garena, aurrera egingo dugu" esanez, Ikastolaren hezkuntza proiektuak aurrera egin zezan, ahaleginak eta bi egin genituen urriaren 8tik aurrera bertan geratu ginen ikasle, guraso eta irakasleok. Bidea malkartsua eta oztupoz bete izan arren, ekinaren ekinez lortu genuen tunel beltzetik argitara ateratzea.

KMK 2021-Urriak 3

Hogeitun urte pasa dira Beasaingo Ikastolak azkeneko KMK antolatu zituenetik. Eta 20 urte gehiago ditugu bizkarrean. Orain, erretiroa hartuta, albotik begiratuta, Ikastola zuhaitz sendo baten pare ikusten dut, sustrai sakonekin: 0 urtetik 16rainoko hezkuntza proiektua garatuta; adar hostotsu ugariz osatua: aniztasunari erreparatuz, sormena landuz eta geure hizkuntza eta kulturatik abiatuta beste herrialdeetara iritsiz, gure abesti kuttun batek dioen bezala:

"Eskuekin naiz mintzatzen, bihotzarekin entzuten. mundua euskaratzen eta euskara munduratzen"

Hunkigarriak, Ikastolako 16 urteko gazteek ikasturteko azken egunean esandako hitzak: "...zuek hezi gaituzue, zuekin hazi gara eta elkarrengandik asko ikasi dugu. Oztupoen aurrean aurrera egiten erakutsi diguzue, euskara maitatzen eta euskaraz bizitzen... eta beti hor egon zarete gure alboan. Maite zaituztegu"

Aurtengo KMK ere, pandemia dela eta, bereziak izango dira. Hala ere, guraso, irakasle eta ikasleak gogotsu, ilusioz beterik ari zarete etengabe antolakuntza lanetan, duela 44 urte bezala, duela 20 urte bezala. Alboan izango gaituzue gu ere. Katea ez da eten. BATERA, BAGARA, BAT GARA.

Arantza Sarriegi Eskisabel
Beasaingo Ikastolako irakasle ohia

San benito ikastolan batxilergoa eredu konpetentzian



Euskal Curriculuma oinarri hartuta, Batxilergoan, konpetentzien lanketan oinarritutako ikas irakas-kuntza prozesuak garatu behar genuela ikusi genuen orain dela urte batzuk. Batxilergoa, DBH eta LHko etapetan egindakoaren zabalkundea izanik eta, aldi berean, etapa honen ezaugarri bereziak kontutan hartuta, hainbat urrats eman behar genituela ondorioztatu genuen gaiaren inguruan hausnartu ondoren.

Gogoeta horren emaitzak bultzatuta, badira lau urte ibilbide honi heldu genionetik. Ikastolen Elkartearen laguntzaz hainbat **ERRONKA** diseinatu eta martxan jarri genituen: hastapenetan, ikasturtean zehar egun bakarreko bat edo birekin eta, orduz geroztik, irekitako bidean jarraitzeko apustua garbi izan dugu, ikaslearen ikaskuntzan eginbide egokiena dela sinestsiz. Garbi dugu konpetentzia diziplinarrak eta metadizipli-

narrak aintzat hartuko dituen hezkuntza proiektua osatu behar dugula eta horretarako ezinbestekoak ditugu ikerketa, hausnarketa eta elkarlana, Ikastolen Elkarteko ikastolon sarearen babesean ekinez.

Gaur egun, ebaluazio oro, diziplina anitzeko gutxienez bi egunetako erronka bat eta hainbat diziplina bakarrekoak ditugu martxan. Honak guztiak, espazio, metodologia, antolaketa, ebaluazioa... aldatzea dakarkigu eta irmo ari gara eremu horien garapenean, espazio zabalak eskainiz, metodologia ezberdinak konbinatuz eta ebaluazio hezigarria landuz. Ohikoa ez den buletinean islatzen dugu erronka hauetan ikaslearen ikaskuntzaren bilakaera. Aniztasunari erantzuteko eta ikasle bakoitzak dituen gaitasun guztiak garatu ditzan edukiak eta konpetentziak batera landu behar dira.

Kilometroak beka

2. Deialdiko gaia: goierriko ahozko ondarea



Haritz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneak jaso zuen, Aiztondoko Zirtoaren tradizioa ikertzeko eta ondoren ikastetxeetan lantzeko asmoz. Lana amaitzear da eta laster izango dugu emaitza zabaltzeko aukera.

lazko esperientzia eta emaitza bikainak izanik, Kilometroekin elkarlanean eta, Goierriko Andramendi, Jakintza eta San Benito ikastolen eta Gerriko Kultur Elkartearen babesarekin Kilometroak Bekaren bigarren deialdia zabaldu dugu.

Goierriko ahozko ondarearen (kantu, ipuin, bertso, atsotitz, esapide...) bilketa eta hari buruzko ikerketa eta dibulgazioa bultzatzeko xedea du beka honek.

Aurten Aresti Oiarbideri eta Akizu Bidegaini esleitu zaie beka. Ikerketaren xedea "Gabiriako Bertsozaritza eta Gabirian Bertsozaritza" izango da.

Mintzola Ahozko Lantegiak Kilometroak Kultur Elkartearekin elkarlanean Kilometroak Bekaren 2. deialdia zabaldu du. Iaz, Amasa-Villabonako Zubimusu ikastolaren zein Zizurkilgo Hernandorena Kultur Elkartearen babesarekin Pedro Mari Otaño Ikerketa beka deialdia egin genuen Aiztondoko ahozko kotasunari edo ahozko kultur sorkuntzari (antzerki, ahozko narrazio, kanta, bertso...) buruzko jakintza ikertzeko helburuarekin.

Gure kulturari plaza berritua eman nahi diogun honetan, bertsozaritzari toki berezia dagokio, eta Mintzolarekin elkarlanean iaz sortutako Pedro Mari Otaño ikerketa bekari jarraipena emango diogu. Gure kulturak behar dituelako ikerketa eta garapena ere, eta garai berrietara egokitzea. Gure arbasoek utzitako ondarea jaso, belaunaldi berriei eskaintzeko.

Esan dudan bezala espazio berrietara iritsi nahi dugu eta horietara iristeko bidea lagunduta egin nahi dugu, ikastoletako komunitatearekin eta herri eragileekin elkarlanean. Eta ekimen hau da lankidetzeta eta elkarlanaren eredu horietako bat. Eskerrik asko Goierriko Ikastolei, Gerriko Kultur Elkarteari eta baita ere, noski, Mintzolari zuen lanerako borondatearengatik. Kilometroak kultur elkartetik ahalegin berezia egingo dugu beraz, lankidetzeta honek ondorengo urteetan jarraipena izan dezan.



Bihar.

Euskal Hezkuntza sistema eta lege berriaren aurrean **Ikastolen proposamena**

Biharko mundua galdera berriak egiten ari zaigu gaur. Hizkuntza anitzetan ari zaigu galdez, jatorri askotako umeen begiradarekin, neskatxak mutikoek besteko jakinminez eta ekingosez. Lan, gizarte zein politika arloko etorkizun aldakorrei erantzuten ere hasi behar dugu oraindixe, gainera.

Elkarrekin ikasteko garaiak dira. Gaur elkarri galderak eginez eta elkar entzunez, denon artean, biharko erantzunak bilatzeko garaiak.

Biharko erantzun horiek emateko, gaurko galdegai orokorrak beharko ditugu. Begirada nazionala. Eta baita begirada partikularrak ere, herriz herri, zer ari garen ondo egiten eta zein zailtasun ditugun ezagutzeko.

Gure bururik mugatu gabe, biharko mundua eratzten ari diren gaurko hezkuntza eredu europarrak aztertu.

Jendarte osoa da gaur guztion seme-alaben hezkuntzaren arduradun, jendarte osoa izango baita onuradun bihar. Eskola, hezkuntza formala, ezinbestekoa da, baina ez bakarra. Hezkuntza ez arautua, etxea, aisialdia eta eguneroko harremanak eta bizimodua ere nahitaezkoak dira.

Gaur, politika publikoak ikastetxe sare ezberdinekin ez ezik tokiko zein nazio mailako eragile sozial ugariekin nola saretu ideiatzea ere badagokigu,

bihar eraginkorragoak, eraldatzaileagoak eta onuragarriagoak izateko.

Ugariak eta handiak dira gaur gure herriak dituen erronkak, bat oinarri-oinarrizkoa: HEZKUNTZA, eta jokatzeko duen papera aldarrikatu behar dugu, herriaren zerbitzura dagoen tresna bezala, kontziente garelako gizarte baten hezurdura hezkuntzan eraikitzen dela. Hezkuntza da, herri baten izaera, ezaugarriak, baloreak... lantzeko tresna garrantzitsuenetako bat. Hezkuntzaz ari garenean, hizkuntzatik haratago doan zerbaiti buruz ari gara. Hezkuntzaz ari garenean, "nolako gizartea nahi dugu etorkizunean?" galderari erantzuten ari gara. Eta, hor, esaten dugu, Europako hezkuntza esparruan Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea behar duela.

Horretarako nahi eta behar dugun hezkuntza ereduaren inguruan adostasun sozial berri bat eraiki behar dugu. Zein da gure herriak behar duen hezkuntza eredu eta zein da horrek eskatzen duen sistema? Egin dezagun indar berezi bat galdera honi erantzun komunitario bateratu bat emateko. Izan dadila hori eztabaida zabal eta sakon baten emaitza, denon artekoa eta hemen garatua eta gure hezkuntza sistemak dituen gabezia nagusiei aurre egiteko balioko duena; hastapeneko marra gorririk gabe, elkarlanerako borondatearekin. Gure hezkuntza sistemak eta gure euskarak merezi dute eta.

KENDU

HERRAMIENTAS DE CORTE
CUTTING TOOLS

Goierrialdea autobusak
Mota guztietako autobusak
Goierriko herrien zerbitzura

tel. 943 88 59 69
info@goierrialdea.eus
Gudugarreta BEASAIN



Kilometroak leloa eta logoa

Kilometroak 2021 ez da zerotik hasten. Gipuzkoako ikastola guztiekin batera gauzatutako prozesu baten ondoren, Kilometroak 2021 jaiak baditu leloa eta irudia:

Herri bat gara, euskara gara, komunitate bat gara, Euskal Herri osorako hezkuntza proiektu bat gara... leloak indar handia du ikastolen kolektiboa azpimarratzeko.

- Aurtengo Kilometroak ikastola jakin bati lotu gabe egoteak ikastola guztiak aintzat hartzeko bidea errazten du.
- Ikastolen aniztasuna eta batasuna, bi ezaugarri nagusi horiek azpimarratzeko bidea samurtzen du.
- Bat egiten du **Ikastolak Herriari** filosofiarekin, eta bat egiten du Biharekin ere: **Herri 1, 11 oinarri, 111 ikastola**.

Egungo egoerari erreparatuko dioten Kilometroak izatea du helburu. Baina egungo egoera zein da?

- Pandemia: Zaindu, maitatu, bizi!
- Euskal Hezkuntza Sistema: Ez daukaguna, behar duguna. Ikastolon proposamena: Bihar endekalogo; gaurtik da bihar.
- Euskararen eta euskal kulturaren beheraldia. Gure plaza(k) ugaritu euskal musikari, dantzari, arteari, antzerkiari, bertsolaritzari, literaturari...
- Ingurumena: Bera gabe ez gara, naturarekin bat egin, bat izan...
- Aniztasuna eta inklusioa: denok eta bakoitza.
- Parekidetasuna eta hezkidetzatza
- ...

Leloaren aukeraketaren azalpena

Leloak erreferentzia egiten dio aurtengo Kilometroei:

- Batera: Gipuzkoako ikastolek elkarrekin antolatua izango da. Ikastolen batasuna adierazten du eta ez soilik Gipuzkoakoena, Euskal Herri osokoena ere bai baizik.
- Bagara: Gure izatearen aldarrikapena, eta batasunaren ezinbestekotasuna ere adierazten du. Batera bagara, bestela ez gara.
- Bat gara: Gure izatearen osotasuna eta zatiezintasuna adierazten du. Herri bat gara, euskara gara, komunitate bat gara, Euskal Herri osorako hezkuntza proiektu bat gara.

kontuan hartzekoa

Euskara batuan idatzia dago leloa. Batasuna aldarrikatzen ari gara eta horregatik egiten da batuan. Baina esaterakoan, gipuzkera erabil daiteke, baita Goierriko hizkera ere. Horrek, errimarako aukera zabaltzen du:

- Gipuzkera: "Batera, bagera, bat gera"
- Goierriko hizkeran: "Batea, bagea, bat gea"

Irudiaren aukeraketaren azalpena

Batera, bagara, bat gara leloa hartuta, batasun hori 1 zenbakiarekin irudikatu nahi zen, baina zenbakiaren barnealdea elementu ugariarekin osatuz. Elementu horiek aniztasuna erakutsi behar zuten (tamaina, forma, kolore... desberdinak erabiliz), gure herriek eta herri-tarrek eta gure ikastolek dugun aniztasun hori bera. Azken batean, elementu horiek guztiek osatzen dute **1**, eta **1** horrek batzen ditu elementu horiek guztiak. Eraikin edo/eta pertsona desberdin eta ugari ikusten dira **1** zenbakia osatuz; eraikin edo/eta pertsona handi, txiki, luze, estu, lodi, kolore desberdinetakoak... Herri baten arkitektura irudika lezake, baina baita ikastolen multzoa ere; era berean, herri baten osaketa soziala eta komunitarioa irudika lezake, baina baita ikastolen komunitatea ere.



Kilometroak kanta

Lander Arizmendi



Maiz esan izan da, ahopean bada ere, bertso jendea alua dela. Eta baliteke, atsotitz denen antzera, dagokigun esamesak ere egia izpirik gordeztea bere baitan. Niri inork galdetuko balit, ordea, alutzat beharrean animalia buru karratutzat joko nuke bertsolaria. Xelebrea oro har, baina buru karratua oroz gain.

Ez zaitzabela kanpoalde zilindriko eta uztai itxurako txapelak engainatu, kontuaren mamia azal barrenean topatzen baita, pentsamendua gartzten den txoko hartan. Izan ere, kantuan dabile-naren burmuina eskemaz osatuta dago, eta zinez suertatzen da zaila bertsolaria bere betiko neurri, doinu, errima-sorta eta dena delako estruktura mental kutunetik ateratzea. Bat-batekotasun ikasia da berea. Nori okurrituko zitzaion, bada, aurtengo Kilometroak jairako abestiaren ardura bertsolari baten esku uztea? Alua behar luke...

Txantxak alboan utzita, ez da erronka samurra udarako *hit*-a sortzen ahalegintzearena, ez be-deren azkenekoz instrumentu bat jotzen derrigo-rrerko txirula klaseetan ikasi zuenaren paperetik. Bidean biak herdoildu dira, haizezko tramankulu hura eta nire kultura musikala. Zentzu horretan, eskerrak musika munduan bakarleri baino talde gehiago dauden. Baina, orduan, nondik abiatzen da sorkuntza-lana? Zeintzuk dira abesti berri bati forma emate aldera jarraitu beharreko pausoak? Zein, musikariaren inspirazio iturriak? Eta, lanabesak? Alferrik litzateke neroni erantzuten saiatzea, izan ere, bertsolariok iparrorratzak aldrebestu eta atzekoz aurrera egiten dugu lan, a capella gehienez. Hortaz, inork aurreko sekretuak azaleratu nahiko balitu, hobe luke Igor Barreros eta Aitor Furundarenarekin harremanetan jarri, euren eskarmentuak eman baititu aurtengo kantaren oinarriak.

Finean, aurretiaz Barrerosen obraren berri duen hark abestia entzun eta lehen kolpean antzeman-go luke ziurrenik musikariaren eragina. Hein handi batean bere gidaritzak bultzatu du taldea, eta bera da, azkenerako, kantaren melodia eta auke-raketa instrumentalaren erantzule. Era horretan, aski nabarmena da rap munduaren zantzua eta estudioan loratutako erritmo bizi batek dantzan garamatza La Habanako kaleetan barrena. Estilo berritzaile eta ausart baten aldeko apustua luzatu du artista ordiziarrek, entzuleen belarriak aztortu eta euskal musikagintza Karibeko haizez doitu asmoz.

Tartean, baina, badira geurera itzularazten gaituzten soinu ezagunagoak ere, aspaldiko partez herri galduren bateko erronomia amaigaberen baten bueltan gaudela, hankak urtuko zaizkigun sentazioa berpizteko gai direnak. Kondairak dio badela hor nonbait Goierri aldean gizon bat trikiti bati lotua, ezin bereizi ditzakeena bere muskulu eta hezurak akordeoiaren hauspo eta teklaturtik. Furunda deiturari erantzuten omen dio eta hainbeste urtean musikari eskainitako denboraren eraginez ibilkera bera ere gelditu zaio harmoniko. Barrerosek findutako haritik, mugimenduz beteriko puntadak ematea lortu du Furundak eta abestiaren errepikara heldu denari kostako zaio jauziei eustea.



Aitor Furundarena

Lerro batzuk atzera utzi dut agerian zail egingo zitzaidala kantu bat nola sortzen den asmatzea. Ezjakintasun beretik, ordea, esango nuke lehenbizikoz abesti bat entzuten dugunean, melodiak erakartzen duela nagusiki geure arreta eta bigarren aukera bat behar izaten dela mezuari erreparatzeko. Erritmoa eta doinua erakargarriak direnean, garunaren iskin sakonenean iltza daiteke kanta eta aski da pasarterik laburrena eguzkia sartu artean behin eta berriz errepikatzen jarduteko. Zer egingo diogu, bada, eboluzio biolo-

gikoak kondenatu bagintuen horretara? Batek daki noiztik dauzkagun bi belarri aho bakarraren gainean. Ez ote du nahiko, bada, esan horrek hitz egiten dugunaren bikoitza entzun beharko genukeela, edota bestela, entzuten dugunaren erdia esan?



Igor Barreros

Baina tira, eztabaida filosofikoetan korapilatu gabe, aurtengo kantak ere badarama mezu bat lerro zein lerroartean gordea. Hitzak ez dira noski geureak, lehendik ere bazeuden eta hiztegian, baina Ainhoa Mujika eta bion artean ordenatu ditugu abestiak eskatzen zituen estrofen neurri- ra. Bertsotan dabilena erdi ohitua dago zeregin horretara, eta gehienetan isiluneak errimatzea izaten da zailena.

Berezietan berezi igaro da, zinez, joan den urtea. Osasun neurrien harira, distantziak handitu eta elkarretaratzeak murriztu diren honetan, bada oharkabean arrisku taldeko bihurtu zaigun beste inor: euskara. Arnasestuka dabil azken boladan eta ez soilik musukoen eraginez. Haren immunitate-sistema indartzeko txertorik ezean, geure plazak eta kaleak berreskuratzen joatea da sendabiderik eraginkorrena eta, besteren artean, abagune ederra izan daiteke Kilometroak 2021 jaia, neurri berri eta behar zaharretara egokitua.

KILOMETROAK BIDEA ERAKUSKETA

Ordizia Barrena jauregian	IRAILAREN 13tik 17ra	Beasain Usurbe antzokian	IRAILAREN 20tik 24ra	Lazkao Udaletxeko aretoan	IRAILAREN 27tik URRIAREN 1era
-------------------------------------	-----------------------------	------------------------------------	-----------------------------	-------------------------------------	--

BAT GEA! BERTSO SAIOA + KULTUR EMANALDIA

Lazkaon Ikastolako DBH eraikineko atarian IRAILAK 17, 19:00etan Aurkezlea: Aizpea Garmendia. Bertsolariak: Iban Urdangarin, Maddi Aiestaran, Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso. Musikariak: Lazkaoko Banda eta Abestiaren emanaldia. Dantzariak: Oin Arin Dantza Taldea.	Beasainen Usurbe antzokian IRAILAK 24, 19:00etan Aurkezlea: Saroi Jauregi. Bertsolariak: Aitor Sarriegi, Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia. Musikariak: Muxutruk erromeria taldea, Aitor Furundarena eta Abestiaren emanaldia. Dantzariak: Aurtzaka eta Ostadar taldeak.	Ordizian Herri Antzokian URRIAK 1, 19:00etan Aurkezlea: Igor Eguren. Bertsolariak: German Urteaga, Onintza Enbeita, Andoni Egaña eta Ane Zuazubiskar. Musikariak: Xabier Chreuet, Aitor Furundarena, Eneko Lacalle eta Abestiaren emanaldia. Dantzariak: Amets Bide taldea.
--	--	---

Prezioa: 7€ | Izen-ematea: kilometroak.eus webgunean


BIHAR ENDEKALOGOA FOROAK IKASTOLETAN


Andramendi Ikastola Jakintza Ikastola San Benito Ikastola	IRAILAREN 30a
--	----------------------

KILOMETROAK 2021 BEZPERA

Ordizia Barandiaran plazan eta frontoian Urriak 2 11:00etan	EUSKAL JOKO ETA KIROLAK + EKIROCK	Beasain Urbialde plazan Urriak 2 19:00etan	HAATIK DANTZA TALDE GARAIKIDEA 7€	Lazkao Ikastolako jolastoki estalian Urriak 2 19:00etan	ENEKO DORRONSORO ETA FREDI PELAEZ 5€
--	--	---	--	--	---

Izen-ematea: kilometroak.eus webgunean





KILOMETROAK 2021

URRIAK 3

eguna

Kilometroak eguna	Protokoloa	Ordizian: Saninazio eraikinean
Umeentzako animazioa (HH)	Jolasak eta ikuskizunak	Beasaingo Igartza parkea (eta beharrez gero inguruak)
Umeentzako animazioa (LH)	Jolasak eta ikuskizunak	LH 5-6: Lazkaon: San Benito ikastolako jolastoki estalian LH 3-4: Ordiziako Barrena parkea LH 1-2: Beasaingo Igartza parkea
Gazteentzako ekintzak (DBH)	EUSKARAjolas	Hiru herrien zehar zirkuitoa. Ondoren bazkaria eta kontzertua Oiangu parkean.

Izen-ematea: kilometroak.eus webgunean




LORTEK

MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

KILOMETROAK

bat gara



www.lortek.es

Ikastolak herriari

Kursaal-etik Euskaldunara.

COVID-19aren eraginez, 2020 eta 2021 urteak gogorak izan dira ikastolen jaietan. Ezin izan ditugu gure asmoak eta nahiak aurrera eraman. Euskal gizartearekiko gure konpromisoa eta kultur ekarpena ezin bideratu. Ezin Euskal Herriko plaza zabaletan gure ekarpenik egin.

Egoera horretan, Ikastolen Elkartean, IKASTOLAK HERRIARI egitasmoa aurrera eramatea erabaki genuen. Nolabait azaltzeko, herrietako plazetara ezin garenez bertaratu, gure ekarpena Euskal Herriko etxeetara bideratzea izan zen. Honetan, Ikastolen jaietan ohikoak diren laguntzaileez gain, ELKAR eta EITB taldeen laguntza zuzena izan genuen.


2020ko ekitaldia arrakastatsua izan zen, pandemia garaia izanik ere. Aurrera egitea erabaki genuen. Zorretan ginen euskal gizartearekin. Gure ekarpena egin beharra genuen.

Horrela, azaroaren 19an, Kursaal-en izan genuen ikuskizun ederra, ondoren ETBren eskutik "Oholtzan" programan emana. Egia esan, bikaina izan zen, bai ekitaldia bera, baita ETBren bidez lortutako ikusle kopurua ere. Bataz beste 48.000 ikastolakide ikusle, eta momenturik onenean, 105.000 ikusle!

2020koa igaro ondoren, 2021ean txanda pasarik ezin egin. Aurrera goaz "Ikastolak Herriari" izeneko ekitaldiarekin. Ikastolok euskal gizarteari gure ekarpena egiteko konpromisoarekin jarraitu nahi dugu. Merezi du. Merezi dugu.

Hori bai. Kursaal-etik, Euskalduna jauregira goaz. Momentuz, Gipuzkoatik, Bizkaira.


Puntako ekitaldia izango da. Adi egon!



Komiki Lehiaketa: “Amaiurko setioaren 150. urteurrena”

‘Ikastolak Herriari’ ekimenaren baitan antolatu du aurreneko aldiz Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak Komiki Lehiaketa, «lehiaketa baino parte-hartzea sustatu nahi izan du ekimenak». Lehiaketa ere badenez, ordea, badu irabazlea: Laudioko ikastolako Jugatx Jiashang Larrakoetxea Gorostidik irabazi du, ‘Amaiurko setioa’ lanarekin.


Lehen edizio honetan gaia emana izan da. Hain zuzen ere, Amaiurko gazteluaren setioaren inguruko kontakizun bat osatzea eskatu zitzaizen egileei. «Batzuek kontakizun hori hartu dute gaitzat; beste batzuek, berriz, gaiaren garaian kokatu arren, amodiozko narrazio bat asmatu dute. Badira garai hartan oinarritutako bestelako kontakizunen bat asmatu dutenak, eta baita hamaseigarren mendea eta gaur egungo aroaren arteko lotura egin duenik ere», azaldu dute.



Lehiaketaren helburu nagusia «komikigintza atsegin duten eta horretan lehen urratsak egiten ari diren gazteei euren sormen lana garatzeko aukera ematea» da eta, era berean, «komikiak atsegin dituzten baina oraindik egiteko urratsa egin ez duten gazteak ere animatu nahi izan dira pauso hori

ematera». Ikasleek urratsa egin izana ere saritu nahi du Ikastolen Elkarteak eta, horretarako, parte-hartzaile guztien artean marrazteko tabletak eta Xabiroi bildumako albumak zozkatu dira. Gainera, parte-hartzaile guztiei Xabiroi aldizkariaren urtebeteko harpidetza bana oparitu zaie.

Bestetik, komiki irabazlearen ilustrazioak nahiz gidoia egile berarena izan bada ere, epaimahaiak azpimarratu du lanik gehienak talde lanaren emaitza izan direla. Komikigintzan, hain zuzen ere, talde-lanak garrantzi handia du, eta gazte hauek erakutsi duten elkarlan hori aldarrikatu nahi izan du epaimahaiak. Lan guztiak ikastolen jaietako webguneetan jarri dira ikusgai.



Lehiaketara aurkeztu diren 39 lanak aztertu ondoren, Dani Fano eta Ainara Azpiazu ‘Axi’ komikigileek eta Koldo Aldabe Ikastolen Elkarteko komunikazio taldeko kideak osatu duten epaimahaiak aho batez erabaki du gazte arabarrarena dela lanik onena. «Irudigintza bezala narrazioa ere aintzat hartuta» Jugatx ‘Amaiur 150’ lanak merezimendu osoz jaso duela saria azpimarratu du epaimahaiak.

‘Amaiur 150. Amaiurko setioa’ Xabiroi komiki aldizkariaren urriko zenbakian argitaratuko da, eta Dani Fano komikigile eta aldizkariaren zuzendariak lagunduko dio Jugatxi aldizkariaren argitaratzeko edizio lanetan.



EUSKARA, BIZI

Lazkao 21/22



BARNETEGIA

ORDUKAKO IKASTAROAK

AUTOIKASKUNTZA

MAILA GUZTIAK

KULTUR JARDUERAK

Elosegi 40 bis
20210 Lazkao

☎ 943 88 92 31
☎ 688 65 57 79

lazkao@maizpide.eus
www.maizpide.eus

HABEk diruz lagundua



Eskolarteko Bertso Txapelketaren finala eta Liburu ibiltaria

Jakina den moduan, joan den urtean, pandemiak eragindako egoera tarteko, asko eta asko izan ziren bertan behera geratu ziren ikuskizun, kontzertu, jaialdi eta, oro har, kultur jarduerak. Horien artean ikastolen jaiek. Utzitakohutsunea ezingo zela bete argi izanik, bost jaiek erabaki zuten urtea ezin zela zapore mingotsez agurtueta Ikastolak Herriari ekitaldia antolatu zuten auzolanean. Azaroan gauzatu zen Kursaalean eta bertan sortutako giroa apartekoa izan zen. Iazko esperientzia eta ikastolek haren inguruan egindako balantze positiboa aintzat hartuta, 2021. urteko ikastolen festek urtean zehar garatuko den izen bereko jardueraren eta ekintza-programa bateratua osatu dute. Ikastolen izaerari jarraiki, aipaturiko programa auzolanean eratu dute.

Programak jasotzen dituen ekintza eta ekimenak askotarikoak dira, bertsolaritza, musika eta artea landuko dituztenak, besteak beste.

Lehen ekintza burutu da jada. 2020an Euskal Herriko Eskolartekoaren finalik ezin izan zenez egin, bertsolari gazteentzat aukera eta opari izan diren hiru saio antolatu dituzte Bertsozale Elkartearen eta Ikastolen Elkartearen artean. Batetik, mikrofonoan norbere ahalmena probatzeko aukera eta, bestetik, bertsolari handiak ondoan izateko oparia.

Jendaurrean jarduteko beste era bateko aukera eskaini zaie, beraz, bertsolari gazte finalistei. Eskolatik Plazara izena izan duen ekimenak Gernika-Lumon, Iruñean eta Altzon izan du pausalekua. Hiru saiootan banatuta kantatu dute finalerako izendatuta zeuden bertsolariek, saio bakoitzean goi-mailako bi bertsolari lagun zituztela oholtzan.

Honako hauek izan dira plazan izan diren bertsolari gazteak: Aitor Ugarte, Aner Peritz, Bittori Elizalde, Ekhiñe Zapiain, Eukene De Los Aires, Haira Aizpurua, Irantzu Idoate, Naia Arrizabalaga, Iruñe Basagoiti eta Leire Vargas.

Hitzetik Hortzera telebista programa aritu da saioak grabatzen eta bertsoaldirik onenak otsailaren 27an eta 28an ikusi ahal izan ziren ETB1en. Eta saio berean Mikel Mendizabal eta Juanjo Respaldizari egindako elkarrizketa ere eskaini zuten. Elkarrizketa, bertsolaritza irakaskuntzara eramatean Ikastolen Elkarteak izandako aitzindaritasunaren ingurukoa izango da.



Programa bateratuaren baitan garatuko den bigarren jardueraren ere martxan da. Liburu Ibiltaria deritzon egitasmoa Sopelako Ander Deuna Ikastolan abiarazi zuten otsailaren 15ean, ondorengo astean Leioako Betiko Ikastolan hartu dutelarik. Bi ikastola horiekdira, hain zuzen ere, aurtengo Ibilaldiaren antolatzaileak, eta jaien ekimena izanik, aurtengo jaien antolatzaile diren ikastoletatik igaroko da liburuak, guztien artean osatu dezaten. Baina jaien antolatzaile diren ikastolez gain, beste hainbatek ere hartuko dute parte ekimenean, guztira Euskal Herri luze zabaleko 21 ikastolatako DBH 3ko ikasleek hartuko dute parte, hain zuzen.

Liburuari amaiera emateko ardura Lizarrako ikasleena izango da. Beraiek amaituko dute, eta Nafarroa Oinez egunean panel handi batzuetan ikusgai jarriko dute. Era berean, ekimenean parte hartuko duten ikastolei Liburu Ibiltariaren edizioaren ale bana emango zaie orogarrri gisa.

Ikastolen jaien helburuetako bat da euskaraz bizi, pentsatu, dibertitu eta sortzeko guneak eta ekimenak zabaldu eta sustatzea, eta bereziki gazteei eskaintzea euskaraz ongi pasatzeko, esperimintatzeko eta sortzeko aukerak. Liburu Ibiltariaren ekimenarekin, aukera hori zabaldu zaie DBH3ko ikasleei, eta, aldi berean, 21 ikastola horien arteko elkarlana sustatu nahi izan da, eta eremu soziolinguistikoa desberdinetan kokatuta egonik, errealitate horien guztien isla ere izan nahi du Liburu Ibiltaria ekimenak.



BESTE DOINU BAT POSIBLE DA

25 urteko bidea egin dugu. Eraiki dugun harmonia berria, soinu soinu gauzatzen da, gutako bakoitzak osatzen dugun CAFeko euskararen melodia berria entzuteraino.

CAF | EUSKARA
ZERBITZUA

horma-irudia

Horma-irudia ekimena da 2021eko ikastolen jaiak antolatu dugun jarduera bateratuetako bat. IKAS-TOLAK HERRIARI dinamikari jarraiki antolatu da. Udaberrian zehar gauzatu dugu Eider Eibar ilustratzailearen laguntzaz. Gure irakasle eta ikasleek Eiderrekin ikasi eta aritzeko aukera izanda, izugarri gozatu dute esperientzia.

Jai bakoitzak bere horma-irudia diseinatu eta marraztu du, eta mural guztiek elkartuta diseinu bakarra osatzen dute.

Diseinuak gai bati erantzuten dio: ikastolak eta ikastolen jaiak, inoiz baino gehiago, euskararen eta euskal kulturaren hauspo.

Gaia bakarra izanik, jai edo ikastola bakoitzak hautatu duen arlo bati eskaini dio bere diseinua:

- **Nafarroa Oinez** - Lizarra Ikastolak
> DANTZA
- **Araba Euskaraz** - Laudio Ikastolak
> MUSIKA
- **Herri Urrats** - Bernat Etxepare Kolegioak
> BERTSOLARITZA
- **Kilometroak** - Andramendi Ikastolak
> KULTURA ETA OHITUREN TRANSMISIOA
- **Ibilaldia** - Betiko Ikastolak
> ELKARLANA
- **Ibilaldia** - Ander Deuna Ikastolak
> SAHARAKO HERRIA

Ekintza biribila izan da, ikastolen balioak ardatz hartuta, auzolanean, elkarlanean garatutakoa.



Euskal joko eta kirolen topaketak

Aurtengo Ibilaldia Leioako Betiko eta Sopolako Ander Deuna ikastolek antolatu dute. Pandemia egoera tarteko, ezohiko ospakizuna izango da eta ez da egun bakarren burutuko.

Bizkaiko ikastolen aldeko jaia ez da egun bakarreko ospakizunera mugatuko, eta komunitatea indartzeko kultur proiektu osoa izango da. Horretarako, maiatzaren 30ean ospatuko den Ibilaldiaren aurretik, zenbait jarduera eta topaketa antolatu dituzte.

Bestalde, ikastolen jaiek Ikastolak Herriari dinamikari jarraiki, nazio mailako Euskal Joko eta Kirolak ekimen bateratua antolatu dute. Langileei, familiei eta herriari topagunea eskaini nahi izan zaie, elkartu, ongi pasatu eta harremanak sendotzeko xedeaz.

Egitasmo horren barruan eta Ibilaldiaren jarduera programan, ikasle ohiek, gurasoek eta langileek topaketa-eguna izan zuten Ander Deuna Ikastolan joan den maiatzaren 22an.

Bertan izan ziren Euskal Herriko beste lurraldeetako ikastolen jaia antolatzeaz arduratuko diren ikastetxeetako ordezkariak: Lizarra ikastolako taldea –Nafarroa Oinez– eta Beasain, Ordizia eta Lazkaoko ikastoletako kideak –Kilometroak–. Horietaz gainera, Ander Deuna eta Betiko ikastoletako kideek bina talde aurkeztu zituzten lehia; Herri Urratseko antolatzaileak ere egotekoak ziren, baina, baita kontuengatik, ezin izan ziren bertaratu. Araba Euskarazeko lagunek ere ezin izan zuten oraingoan parte hartu.

Taldeen herri-jolasetako ohiko frogak egin zituzten: txingak, ingudea, zaku-eroatea, giza-probak, harri-jasotzea, auzolana, trontza, lokotxak, sokatira, dantza eta bertsoak. Giro ederra sortu zen eta alaitasuna izan zen nagusi taldekideen artean.

Topaketa hauek ez dute etenik. Hurrengo hitzorduak Kilometroak jaiari (Goierri), urriaren 3an eta Nafarroa Oinez jaiari (Lizarran), urriaren 17an, izango dira.








UNIBERTSITATE GRADUAK

Learning from reality



www.mondragon.edu

INGENIARITZA
EKINTZAILETZA
ENPRESA KUDEAKETA
HEZKUNTZA
HUMANITATEAK
KOMUNIKAZIOA
GASTRONOMIA

